



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko abenduaren 24a

111. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

D SAILA:

**Hitzarmenak:**

—Sustapen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteko dagoen A-68 Autobiari lotzeko eta Euskadi-Aragoi AP-68 Autobideari Errioxan lotzeko obrak burutzeko (2. or.).

---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Sustapen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzeko eta Euskadi-Aragoi AP-68 Autobideari Errioxan lotzeko obrak burutzeko**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko 1982ko abuztuaren 10eko Lege Organikoko 26 b) artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2008ko abenduaren 15eko erabakiaren bidez, Parlamentura igorri du Sustapen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren proiektu bat, Done Jakue bideko A-12 autobia eta AP-68 autobidea eta etorkizuneko A-68 autobia Errioxan lotzeko obrak egitekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 164. artikuluan eta horri loturikoetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondokoa ERABAKI DA:

1. Aipatu hitzarmena Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Xedatzea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko dela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 164. artikuluan ezarritakoarekin bat, Sustapen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren proiektua, Done Jakue bideko A-12 autobia eta AP-68 autobidea eta etorkizuneko A-68 autobia Errioxan lotzeko obrak egitekoa.

Iruñean, 2008ko abenduaren 23an.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda.

**Sustapen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzeko eta Euskadi-Aragoi AP-68 Autobideari Errioxan lotzeko obrak burutzeko**

Madriren,

**BILDURIK**

Alde batetik, Magdalena Álvarez Arza Sustapen ministroa andrea, apirilaren 12ko 436/2008 Errege Dekretuaren bidez izendatua,

eta bestetik, Laura Alba Cuadrado Nafarroako Gobernuako Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilari andrea.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau izenpetzeko behar den legezko gaitasuna.

**ADIERAZTEN DUTE**

LEHENA.- 2006ko martxoaren 30ean Sustapen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak orotariko protokolo bat izenpetu zutela, "Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzeko eta Euskadi-Aragoi AP-68 Autobideari Errioxan lotzeko obrak" azterlan informatiboa eta eraikuntza proiektua erredaktatzeko bi Administrazioen jarduketan orotariko esparru arautzailea ezar zedin.

BIGARRENA.- Protokolo horretan xedatzen dela Estatuko Administrazio Orokorra Ingurumen eraginaren adierazpena egiteko behar diren jarduketak administratiboak burutuko dituela, Estatuko Administrazioak izendaturiko teknikari batek erredaktatuko duela bidezko azterlana eta erredakzio hori bi administrazioak koordinaturik egin beharko

dela, protokoloaren 5. klausulan ezarriko Jarrai-penerako Batzorde Teknikoaren bidez.

Halaber, xedatzen da trazadurarako proiektuaren erredakzioa, Ingurumen eraginaren azterlanaren eta eraikuntza proiektuen erredakzioa Estatu-ko Administrazio Orokorrak kontrataturiko laguntza teknikoko kontratu bakar baten bidez eginen dela.

**HIRUGARRENA.-** Sustapen Ministerioak, 2006ko irailaren 5ean, protokoloan aurreikusirik trazadurarako proiektua eta eraikuntza proiektua erredaktatzeko laguntza teknikoko kontratua izenpetu zuela.

**LAUGARRENA.-** Sustapen Ministerioak, 2006ko abenduaren 28an, trazadurarako proiektua behin-behinekoz onetsi zuela eta jendaurrean jartzeko espedientea ireki zedila agindu. Iragarki bat 2007ko urtarrilaren 15eko Estatu-ko Aldizkari Ofizialean argitaratu jarri zen jendaurrean.

**BOSGARRENA.-** Jendaurreko espedientea eta Ingurumen eraginaren azterlana 2007ko maiatzaren 11n Ingurumen Ministeriora igorri zirela, hark Ingurumen eraginaren adierazpena egin zezan.

**SEIGARRENA.-** 2007ko irailaren 10ean, Ingurumen Ministerioak trazadurarako proiektuaren Ingurumen eraginaren adierazpena egin zuela. Sustapen Ministerioak 2007ko urriaren 19an behin betikoz onetsi zuen proiektua.

**ZAZPIGARRENA.-** Errepide Zuzendaritza Nagusiak, 2006ko otsailaren 13an, "Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzeko 12-LO-5160A proiektua" onetsi zuen eta 2008ko otsailaren 13an, "A-68 Autobia AP-68 Autobideari Errioxan lotzeko 12-LO-5160B proiektua"

**ZORTZIGARRENA.-** 2008ko apirilaren 29an, Errepide Zuzendaritza Nagusiak A-68 Autobia AP-68 Autobideari lotzeko 12-LO-5160B proiektuko obretarako lititazioa egin zuen. Esleitzeke daude.

**BEDERATZIGARRENA.-** 2008ko otsailaren 29an, Ministroen Kontseiluak "Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzeko 12-LO-5160A proiektua" izeneko obren lizitazioa baimendu zuen.

**HAMARGARRENA.-** Izenpeturiko protokoloaren 6. klausulak xedatzen duela bi Administrazioek

konpromisoa hartzen dutela hitzarmen bat sinatzeko haren xede diren tarteen erantzukizun finantzarioak eta eraikitzeak zehazteko.

Adierazi denarekin bat, aldeek, daukaten ordezkarietaz baliaturik, hitzarmen hau sinatu eta klausula hauek ezarri dituzte:

#### KLAUSULAK

**LEHENA.-** Hitzarmen honen xedea da "Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzeko eta Euskadi-Aragoi AP-68 Autobiari Errioxan lotzeko obrak" egiteko jarduketaren exekuzioa zenbatu eta programatzea eta administrazio sinatzaileek obra horietan izan beharreko partaidetza zehaztea.

Jarduketak, trazadurarako proiektua jendaurrean egoteko espedientearen onespenearekin bat, bi eraikuntza proiektu bereizitan zatitu da. Bata, AP-68 autobideari lotzekoa eta bestea, beste jarduketak biltzekoa.

**BIGARRENA.-** Sustapen Ministerioko Errepide Zuzendaritza Nagusia arduratuko da aurreko atalean aipatzen diren obrak kontratatzen eta zuzentzen. Haien aurrekontua, gutxi gorabehera, **HAMAR MILIOI HIRUREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA ZORTZIEHUN EURO ETA HEMERETZI ZENTIMOKOA** (10.329.800,19 eurokoa) da A-68 Autobia AP-68 Autobideari lotzeko eta **LAUROGEITA BI MILIOI BEDERATZIEHUN ETA HAMASEI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMOKOA** (82.916.446,83 eurokoa) A-12 Done Jakue Bideko Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzeko.

**HIRUGARRENA.-** Obrak burutzeko behar diren desjabetzei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kudeatu eta finantzatzeko dituen foru komunitate horretako lurraldekoak eta Sustapen Ministerioak Errioxako Autonomia Erkidegoko lurraldekoak.

"Done Jakue Bideko A-12 Autobidea egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzeko" 12-LO-5160A proiektuan aipatzen diren desjabetzeen balorazioa hauxe da:

Azalpena eta tokia	Zenbatekoa, eurotan (€)
Errioxako probintziako lurraldean, Sustapen Ministerioak pagatu beharrekoa.	1.882.293,76
Nafarroako lurraldean, Nafarroako Foru Komunitateak pagatu beharrekoa.	734.413,48
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.616.707,24</b>

“A-68 Autobia AP-68 Autobideari lotzeko” 12-LO-5160B proiektuan aipatzen diren desjabetzeen balorazioa 1.754.803,83 €-koa da. Obra osoa Errioxako probintzian burutuko denez, Sustapen Ministerioaren kontu izanen da zenbatekoa, oso-rik.

Gaur egun (2008ko azaroan), Sustapen Ministerioak 786.521,01 € pagatu ditu, 12-LO-5160A obrarako, eta 115.521,45 € 12-LO-5160B obrarako. Egin gabe dauden desjabetzeak 2009an eta 2010ean pagatuko dira. Desjabetzeak burutzeko urteko sariak hauexek dira:

Urtea	12-LO-5160A: Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzea		12-LO-5160B: A-68 Autobia AP-68 Autobideari lotzea	
	Sustapen Ministerioa	Nafarroako Foru Komunitatea	Sustapen Ministerioa	Nafarroako Foru Komunitatea
2008	786.521,01	0,00	115.150,45	0,00
2009	500.000,00	234.413,48	500.000,00	0,00
2010	595.772,75	500.000,00	1.139.653,38	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.882.293,76</b>	<b>734.413,48</b>	<b>1.754.803,83</b>	<b>0,00</b>

**LAUGARRENA.-** Obrak bi Administrazioen kontu finantzatuko dira. Haietariko bakoitza bere eskumeneko obren aurrekontuez arduratuko da, banaketa honekin bat, ondoren ematen diren gehieneko zenbatekoetan:

Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzea

Sustapen Ministerioa..... 61.954.662,41 €

Nafarroako Foru Komunitatea..... 20.961.784,42 €

A-68 Autobia AP-68 Autobideari lotzea.

Sustapen Ministerioa..... 10.329.800,19 €

Nafarroako Foru Komunitatea..... 0,00 €

Hala ere, bidezkoa bada, hitzarmenean aipatzen diren obra guztiak burutzeko inbertsioen azken kostuak ezagutu eta gero izanen diren ekarpenak doitzen ahalko dira.

**BOSGARRENA.-** Sustapen Ministerioaren diru-ekarpena aurrekontuetako "Errepideetako azpiegituraren sorrera" 17.038.453B-601 aplikazioetik eginen da.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Diruzaintza Zuzendaritza Nagusian Sustapen Ministerioari LAUGARREN klausulan adierazi den

banaketaren arabera dagozkion diru zenbatekoak pagatuko dizkio, gastuak bidezkoak diren kontabilitate agirien bidez eta, bidezkoak badira, ziurtagirien kopien bidez justifikatu ondoren, 17.038.453B.601 aplikazioan kreditua sortzearen.

Transferentziak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko aurrekontuetako kredituetatik eginen dira.

Hona hemen obrak burutzeko aurreikusi diren urteko sariak:

Urtea	12-LO-5.160A: Done Jakue Bideko A-12 Autobia egiteke dagoen A-68 Autobiari lotzea		12-LO-5160B: A-68 Autobia AP-68 Autobideari lotzea	
	Sustapen Ministerioa	Nafarroako Foru Komunitatea	Sustapen Ministerioa	Nafarroako Foru Komunitatea
2008	0,00	0,00	100.000,00	0,00
2009	500.000,00	5.000.000,00	1.000.000,00	0,00
2010	1.500.000,00	10.961.784,42	1.500.000,00	0,00
2011	59.954.662,41	5.000.000,00	7.729.800,19	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>61.954.662,41</b>	<b>20.961.784,42</b>	<b>10.329.800,19</b>	<b>0,00</b>

**SEIGARRENA.-** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa izanen da Nafarroako Foru Komunitatean eraikitzen den bide azpiegituraren titularrak, obrak zerbitzuan jartzen direnez geroztik Nafarroako Errepideen Sarean sartuko baita.

**ZAZPIGARRENA.-** Hitzarmen honetarako Jarraipenerako Batzorde Misto bat sortu da, bi Administrazioek modu paritarioan osatua. Ordezkarik hauek izanen ditu:

Sustapen Ministerioa:

-- Errepideetako Zuzendaritza Nagusiko Proiektuetarako zuzendariorde nagusia.

– Estatuko Errepideen Errioxako Barrutiko burua.

– Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen ordezkariaren ordezkari bat.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa-Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua:

– Herri Lan zuzendari nagusia.

– Proiektu, Trenbide eta Lan Hidraulikoen Zerbitzuko zuzendari nagusia.

– Bide eta Eraikuntza Zerbitzuko zuzendaria.

Batzorde hori alde batek eskaturik bilduko da, hiru hilabete behin gutxienez.

Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

– Hitzarmen honen edukia bultzatzea.

– Hitzarmenaren edukia interpretatzea.

– Hitzarmeneko jarduketan jarraipena egitea.

– Obrak egiten ari direla aurrekontuetan izan litezkeen aldaketak aztertu eta, bidezkoa bada, aldaketa horiei dagozkien zatiak administrazio sinatzaile bakoitzari egozte.

– Hitzarmenaren jarraipen ekonomikoa egitea.

**ZORTZIGARRENA.-** Hitzarmen honek sinatzen denetik obrak hartu eta pagatu bitarte izanen du indarra.

**BEDERATZIGARRENA.-**

1. Hitzarmen hau administratiboa da. Jarraipenerako Batzorde Mistoari dagokio edukia interpretatu eta betetzerakoan sor litezkeen liskarren gainean ebaztea.

2. Interpretatu eta betetzean sor litezkeen aferak Administrazioarekiko Auzien epaitegi eskudunek ezagutu eta erabakiko dituzte.

Eta lehengo guztiarekin ados izatearen frogagarri, hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan, ondorio bakarraz, idazpuruan adierazten den leku eta egunean.

SUSTAPEN MINISTERIOTIK: Magdalena Álvarez Arza, SUSTAPEN MINISTROA.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOTIK: Laura Alba Cuadrado, HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO KONTSEILARIA.

---



<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	